

**KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA**

=====

**I.- XEDAPEN OROKORRAK**

**1. Artikulua.**

Udal honek, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Lurralde Historikoaren Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, obrak egiteagatik edo udal zerbitzuak ezarri edo hedatzeagatik Kontribuzio berezien Ordenantza Orokorra onartzen du.

**2. Artikulua.**

Ordenantza, udal barruti osoan aplikatuko da.

**II.- ZERGAPEKO EGITATEA**

**3. Artikulua.**

Kontribuzio berezien zergapeko egitatea izango da, Udalak obra publikoak egin edota udal zerbitzu publikoak ezarri edo hedatzearen ondorioz subjektu pasibo batek lortzen duen onura edo bere ondasunen balioaren gehikuntza.

**4. Artikulua.**

1.- Udal obra eta zerbitzu izaera edukiko dute:

a.- Udalak, helburu jakin batzuk betetzeko, bere eskumenen esparruan egiten dituenak, ondare ondasunen jabe izanik partikularrek egiten dituztenak salbu.

b.- Udalak egiten dituenak, beste Erakunde Publiko batzuk hala delegatu edo egotzi dizkioteko, eta beste lan edo zerbitzuak legeriarekin bat etorritik horien titularitatea onartu badu.

c.- Bestelako Erakunde Publikoek edo haien emakidadunek, udalaren ekarpen ekonomikoarekin egindakoak.

2.- Ez dute udal obra edo zerbitzuren izaerarik galduko, aurreko zenbakiko "a" letran aurreikusitakoek, nahiz eta bere osotasunean Udalaren kapital soziala duten Erakunde Autonomoek edo Merkataritza Elkarrekin, udal ekarpena duten emakidadunek edota zergadunen administrazio elkarrekin egindakoak izan.

**5. Artikulua.**

Kontribuzio berezien kontzeptupean jasotako kopuruak, haiek exijitzeko arrazoi izan zen obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango da.

**6. Artikulua.**

1.- Kontribuzio berezien subjektu pasiboak ondorengo hauek izango dira: zerga ordaintzeko obligazioa sortzen duten obrak egitearen ondorioz edo udal zerbitzuak ezarri nahiz hedatzearen ondorioz onura berezia ateratzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zerga Foru Arau Orokorraren 33. artikulua aipatzen dituen Erakundeak.

2.- Onura berezia jasotzen duten pertsonak izango dira:

a.- Ondasun higiezinak eragiten dieten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo hedatzeagatik ezarriko diren/hedatzeagatik zerga berezietan, ondasun higiezinen jabeak.

**b.-** Enpresa ustiapenen ondorioz egin beharreko obregatik edo ezarri edo hedatu beharreko zerbitzuengatik ezarriko diren kontribuzio berezietan, haien titular diren pertsona edo erakundeak.

**c.-** Suteak itzaltzeko zerbitzuen handitze edo hedatzeak sortzen dituen kontribuzio berezietan, ukitutako ondasunen jabeek gain, udalerrri barruan bere jarduera alor horretan garatzen duten aseguru etxeak.

**d.-** Lur azpiko galeriak egiteagatik kontribuzio berezietan, haiek erabiliko dituzten enpresa hornitzaileak.

**3.-** Jabetza horizontaleko erregimeneko kasuetan, jabekideen ordezkariak, jabekide horien izena eta komunitatean duten parte hartze koefizientearen berri emango dio Udal Administrazioari, banakako kuotak kobratu ahal izateko. Horrela egingo ez balitz onartutzat emango da kuota bakarra kobratzea, haren banaketaz jabekideen komunitate bera arduratuz.

#### **IV.- OINARRI ZERGAGARRIA**

##### **7. Artikulua.**

**1.-** Kontribuzio berezien oinarri zergagarria gehienez ere izango da, zerbitzuak ezarri edo hedatzeagatik edo obrak egiteagatik Udalak izango duen kostuaren %90a. Udalak ordenamendu erabakia hartzerakoan, ezar daitekeen portzentajea ezarriko du kasu bakoitzean.

**2.-** Kostu horrek ondorengo kontzeptuak aurreikusiko ditu:

**a.-** Ondorengo lan perizialen kostu erreala: Proiektuen idazketa eta obra, plangintza eta programa teknikoek zuzendaritza.

**b.-** Egin beharreko obren edo zerbitzuen hedatze edo ezartze lanen zenbatekoa.

**c.-** Obra edo zerbitzuek hartuko lituzketen lurren balioa, beti ere, herri erabilerako ondasunak, Udalari doan eta derrigorrez emandako lurak edota legerian ezarritako terminoetan emandako higiezinak ez badira.

**d.-** Eraikuntzak eraistetik, eta landaketak, obrak edo instalazioak desegitetik sortutako kalte-ordainak, eta eraitsi edo okupatu behar diren ondasunen maizterrei eman beharrekoak..

**e.-** Obra edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, udalak kreditu bat eskatu behar badu, kontribuzio bereziek estaltzen ez duten zatia ordaintzeko edo haiek orokorrean zatikatzen badira, estalitakoa finantzatzeko.

3.- Obra edo zerbitzuen aurreikusitako kostu osoak, aurreikuspen izaera izango du. Kostu erreala aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa izango balitz, aurreikusitakoa hartuko da, dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4.- 4.1.c artikulua aipatzen dituen obra nahiz zerbitzuak direnean edo, artikuluko 2 zenbakiko emakidadunek egindakoak direnean, kontribuzio berezien oinarri zergagarria, ekarpen horien arabera zehaztuko da, obra edo zerbitzu beraren zioz beste Herri Administrazio batzuek ezar ditzaketen kalterik gabe. Edozein eratarik, artikuluko honetako lehen puntuak aipatzen duen %90eko muga errespetatuko da.

5.- Oinarri zergagarria zehazteko, Udal Administrazioak bere gain hartuko duen kostutzat ulertuko da, kostu osoaren zenbatekoari, Udal Administrazioak lor ditzakeen dirulaguntza edo laguntzen zenbatekoa kendu ondoren geratzen den kopurua.

6.- Aipatutako dirulaguntza edo laguntza, kontribuzio bereziko subjektu pasiboren batek emango balu, zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehendabizi. Dirulaguntza edo laguntzaren balioak kuota hori gaindituko balu, gainerakoa subjektu pasiboen kuotetatik kenduko da, hainbatatuz.

## V.- KUOTA

### 8. Artikulua.

1.- Kontribuzio berezien oinarri zergagarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzu mota eta izaera kontutan hartuz, hurrengo erregelaren arabera:

a.- Orokorrean, eraikinen fatxadako metro linealak, azalera, horien bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eraginetarako katastroko balioa aplikatuko dira, batera nahiz banan banan, banaketa-modulu gisa.

b.- Suteen itzalketarako zerbitzuaren ezarpen, hedapen edo hobekuntza denean, udal barrutian kokaturiko ondasunen arriskua estaltzen duten entitate edo sozietateen artean egin daiteke banaketa, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiokkeen kuota berak bildutako kuoten zenbatekoaren %5a baino handiagoa balitz, gehiegizkoa hurrengo ekitaldietara atzeratuko da, guztiz amortizatu arte.

c.- Ordenantza honetako 6. artikuluko d) atalak aipatzen dituen obrak direnean, kontribuzio berezien guztizko zenbatekoa, erabiltzaile izango diren konpainia edo enpresen artean banatuko da, horietako bakoitzari erreserbatutako espazioaren arabera edo horien sekzio osoaren arabera, nahiz eta berehala erabili ez.

### 9. Artikulua.

Aplikagarri den legeriak edo Nazioarteko Hitzarmenek hobari fiskalak ematen dituztenean, onuradunei legozkiekeen kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.

### 10. Artikulua.

Ordaindu beharreko kuota finkatu ondoren, subjektu pasiboak horrela eskaturik, Udalak horren zatiketa edo gehienez ere bost urtetako epean luzatzea onetsi ahal izango du.

## VI.- TRIBUTUAREN SORTZAPENA

### 11. Artikulua.

1.- Kontribuzio bereziak lanak egiten direnean edo zerbitzuak eskaintzen hasten diren unean sortzen dira. Lanak zatikagarriak balira, sortzapena subjektu pasibo bakoitzarentzat sortuko da, obraren tarte edo zati bakoitzari dagozkionak egiten direnetik.

2.- Aurreko zenbakian ezarritakoaren kaltetan gabe, ezarri eta ordenatzeko erabakia onartu ondoren Udalak kontribuzio berezien alde aurreko ordainketa eskatu ahal izango du, hurrengo urterako aurreikusitako kostuaren zenbatekoaren arabera. Ezin izango da urteko ordainketa berri bat eskatu, ez badira bukatu, aurrerakinaren arrazoia izan ziren obrak.

3.- Kontribuzio berezien sortzapen unean kontutan hartuko da ordaindu behar duen pertsona zehazteko xedez, Ordenantza honetako 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, nahiz eta ordenamendu erabaki konkretuan subjektu pasibo gisa agertu onarpen-datan subjektu zena eta horrek kuotak aurreratuak izan arren, artikuluko honetako bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera. Ordenamendu erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak, horren jakinerazpena izan duelarik, ezarpena sortzen duten ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak eskualdatzen dituenean aipatu erabakia hartzen denetik sortzapenaren hasterainoko epearen barruan, egindako eskualdaketa berri eman beharko dio Udal Administrazioari hori gertatu eta hurrengo hilabetearen, eta horrela egingo ez balu, Administrazio horrek, espedientean subjektu pasibo gisa agertzen denaren kontrako kobratze tramiteak egin ahal izango ditu.

4.- Behin obrak osorik edo partzialki bukatuta edo zerbitzua ematen hasi ondoren, subjektu pasiboak, oinarria eta behin betiko kuota bananduak finkatuko dira, egoki diren likidazioak eginik eta egin litezkeen ordainketa aurreratuak konturako emaitza bezala konpentsatuz. Behin betiko finkatze hau egitea Udal Administrazioari dagokio, kasu horretako obra edo zerbitzurako tributuaren ordenamendu erabaki zehatzeko arauak beteaz.

5.- Aurreraturako ordainketak tributuaren sortzapen unean subjektu pasibo izaera ez duten pertsonak egiten badituzte, edo dagokien behin betiko kuota indibiduala gainditzen badu, Udalak ofizioz egingo du beharrezko itzulketak.

## VII.- EZARPENA ETA ORDENAMENDUA

### 12. Artikulua.

1.- Kontribuzio bereziak eskatu ahal izateko alde aurretik haiek ezartzeko erabakia hartu beharko da kasu konkretu bakoitzean.

2.- Kontribuzio berezien bidez finantzatu behar den obra bat egin edo zerbitzu bat ezarri nahiz hedatzeari buruzko erabakia ezin izango da bete, aurrekoen ordenamendu zehatza onartu bitartean.

3.- Ordenamendu erabakia nahitaez hartu beharko da eta horren barruan obra eta zerbitzuen aurreikusitako kostuaren zehaztapena, onuradunen artean banatu beharreko kantitatea, eta banaketa irizpideak agertuko dira. Ordenamendu erabaki zehatza Ordenantza honen arabera izango da.

4.- Kontribuzio berezietako ordenamendu erabakia hartuta eta ordaindu beharreko kuotak zehaztuta, banan banan jakinaraziko zaizkie subjektu pasiboek beraiek edo beren helbideak ezagunak balira eta, horren ezean, ediktu bidez. Interesatuak birjarpen errekursoa jarri ahal izango dute Udalaren aurrean hala nola erreklamazio ekonomiko-administratiboa Lurralde Historikoaren Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, horien edukina kontribuzio berezien egokitasuna, onura berezia ateratzen duten pertsonak ordaindu beharreko kostuaren portzentajea edo asignaturiko kuotak izan daitezkeelarik.

### 13. Artikulua.

1.- Udal konpetentziako obra eta zerbitzuak Udalak egin edo eskaintzen baditu bestelako Tokiko Entitate baten laguntza ekonomikoarekin, eta, indarreango arautegian ezarritakoaren arabera kontribuzio bereziak ezartzen baldin badira, horien kudeaketa eta bilketa lanak burutzeko edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeko ardura hartzen duen Erakundeak egingo ditu, ezarpen eta ordenamendu erabakiei dagokienean entitate bakoitzak bere konpetentzia gordetzearen kaltetan gabe.

2.- Horietako erakunderen batek ordenamendu erabaki zehatza onartuko ez balu, eraginik gabe geldituko da jarduera unitatea, eta bakoitzak bere aldetik hartuko ditu beharrezko erabakiak.

## VIII.- HERRITARREN LAGUNTZA

#### **14. Artikulua.**

1.- Obrek ukitutako jabe edo tituludunek Zergadunen Administrazio Elkartea osatu ahal izango dute eta obren burutzea edo udal zerbitzuen ezarpen nahiz hedaketa sustatu, obra edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagozkienaz gain, Udalari dagokion parte ordaintzeko konpromisoa, Udalaren finantza egoeragatik berak ezingo balu egin.

2.- Era berean, obrak egiteak edo udalak zerbitzu publikoak ezartze nahiz eratzek ukitzen dituen jabe edo tituludunek Zergadunen Administrazio Elkarreak osatu ahal izango dituzte kontribuzio berezien ordenamendu akordioaren jendaurreko epealdian.

#### **15. Artikulua.**

Aurreko artikulua aipatzen dituen Zergadunen Administrazio Elkarreak osatzeko, ukitutakoen gehiengo osoak hartu behar du erabakia, beti ere gutxienez, ordaindu beharreko kuoten bi herenak baldin badira.

#### **16. Artikulua.**

1.- Zergadunen Elkarreen funtzionamendua, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua garatuko duten arauzko arauak ezartzen dutenaren arabera izango da.

2.- Nolanahi ere, Zergadunen Administrazio Elkarreak kideen gehiengoarekin eta ordaindu beharreko kuoten bi herenak ordezkatzuz hartutako erabakiak, obligaziozkoak izango dira gainerakoentzat. Elkarre horrek, beharrezko quorumarekin, Batzorde edo Batzar Beterazlea izendatuko du eta honek hartutako erabakiek indarra izango dute interesatuak behartzeko.

3.- Zergadunen Administrazio Elkarreak, 14. artikuluko lehen eta bigarren zenbakietan ezarritakoaren arabera osatu ondoren, obra eta zerbitzuen zuzeneko gauzatzea eskatu ahal izango diote Udalari.

Horretarako, hurrengo baldintza hauek hartuko dira kontuan:

a.- Exekuzioa Udal Administrazioak egindako proiektuko baldintza eta epeak beteaz egin beharko da edo, gutxienez Elkarreak aurkeztu eta Udalak onartutako proiektuaren arabera.

b.- Aipatutako exekuzioa, nolanahi ere, Udalak izendatutako teknikarien zuzendaritzapean egingo da.

c.- Elkarreak bere gain hartuko du interes publiko nahiz pribatuei sortu ahal zaizkien kalteen ardura, hala nola exekuzioaren atzerapenarena eta behin betiko jaso ondorengo bost urteetan ager litezkeen izkutuko bizioena.

d.- Udalak ahalmena du Zergadunen Administrazio Elkarreak aipatu obra eta zerbitzuen exekuziorako egingo dituzten proposamenak onartu ala errefusatzeko.

e.- La apor Obra eta zerbitzuetarako udal ekarpena, horrelakorik baldin balego, behin betirako jaso eta berehala egingo da.

### **IX.- AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza Fiskala eta bere Eranskina, 1989ko azaroaren 29an izandako Udal batzarrean onartu ziren eta 1990eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu. Harrez geroztik indarrean dago, aldaketan historian aipatzen diren aldaketekin eta indarrean egongo da derogatzen ez den bitartean.

**ALDAKETEN HISTORIA**

| <b>Udal batzarrak onartu<br/>zuen eguna</b> | <b>GAO. Zenbakia eta<br/>argitaratu zen eguna</b> | <b>Indarrean sartu<br/>zen eguna</b> | <b>Aldatutako artikulak</b> |
|---------------------------------------------|---------------------------------------------------|--------------------------------------|-----------------------------|
| 1989ko IRAILA. 29a                          | 247-89ko ABEND. 30a                               | 90eko URT.1a                         | Hasierako onarpena          |

ALKATEA,

IDAZKARIA,

Nº8

**ORDENANZA FISCAL GENERAL DE CONTRIBUCIONES ESPECIALES**

=====

**I.- DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral del Territorio Histórico, reguladora de las Haciendas Locales, aprueba la Ordenanza General de contribuciones especiales por la realización de obras o por el establecimiento o ampliación de servicios municipales.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

**II.- HECHO IMPONIBLE**

**Artículo 3.**

Constituye el hecho imponible de las contribuciones especiales la obtención por el sujeto pasivo de un beneficio o de un aumento de valor de sus bienes como consecuencia de la realización de obras públicas o del establecimiento o ampliación de servicios públicos municipales por el Ayuntamiento.

**Artículo 4.**

1.- Tendrán la consideración de obras y servicios municipales:

a.- Los que realicen el Ayuntamiento dentro del ámbito de sus competencias para cumplir los fines que les estén atribuidos, excepción hecha de los que aquellos ejecuten a título de dueños de sus bienes patrimoniales.

b.- Los que realice el Ayuntamiento por haberles sido atribuidos o delegados por otras Entidades Públicas y aquellos cuya titularidad hayan asumido de acuerdo con la legislación.

c.- Los que realicen otras Entidades Públicas, o los concesionarios de las mismas, con aportación económica municipal.

2.- No perderán la consideración de obras o servicios municipales los comprendidos en la letra "a" del número anterior, aunque sean realizados por Organismos Autónomos o Sociedades Mercantiles cuyo capital social pertenezca íntegramente al Ayuntamiento, por concesionarios con aportación municipal o por asociaciones administrativas de contribuyentes.

**Artículo 5.**

Las cantidades recaudadas por contribuciones especiales sólo podrán destinarse a sufragar los gastos de la obra o del servicio por cuya razón se hubiesen exigido.

**Artículo 6.**

1.- Son sujetos pasivos de las contribuciones especiales las personas físicas y jurídicas y las Entidades a que se refiere el art.33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, especialmente beneficiadas por la realización de las obras o por el establecimiento o ampliación de los servicios municipales que originen la obligación de contribuir.

2.- Se considerarán personas especialmente beneficiadas:

a.- En las contribuciones especiales por realización de obras o establecimiento o ampliación de servicios que afecten a bienes inmuebles, los propietarios de los mismos.

**b.-** En las contribuciones especiales por realización de obras o establecimiento o ampliación de servicios a consecuencia de explotaciones empresariales, las personas o entidades titulares de éstas.

**c.-** En las contribuciones especiales por la ampliación o mejora de los servicios de extinción de incendios, además de los propietarios de los bienes afectados, las compañías de seguros que desarrollen su actividad en el ramo, dentro del término municipal.

**d.-** En las contribuciones especiales por construcción de galerías subterráneas, las empresas suministradoras que deben utilizarlas.

**3.-** En los casos de régimen de propiedad horizontal, la representación de la comunidad de propietarios facilitará a la Administración Municipal el nombre de los copropietarios y su coeficiente de participación en la comunidad a fin de proceder al giro de cuotas individuales. De no hacerse así se entenderá aceptado el que se gire una única cuota de cuya distribución se ocupará la propia comunidad.

#### **IV.- BASE IMPONIBLE**

##### **Artículo 7.**

**1.-** La base imponible de las contribuciones especiales está constituida, como máximo, por el 90 por cien del coste que el Municipio soporte por la realización de las obras o por el establecimiento o ampliación de los servicios. El Ayuntamiento al adoptar el acuerdo de ordenación fijará, en cada caso, el porcentaje aplicable.

**2.-** El referido coste estará integrado por los siguientes conceptos:

**a.-** El coste real de los trabajos periciales, de redacción de proyectos y de dirección de obras, planes y programas técnicos.

**b.-** El importe de las obras a realizar o de los trabajos de establecimiento o ampliación de los servicios.

**c.-** El valor de los terrenos que hubieren de ocupar permanentemente las obras o servicios, salvo que se trate de bienes de uso público, de terrenos cedidos gratuita y obligatoriamente al Ayuntamiento, o el de los inmuebles cedidos en los términos establecidos en la legislación.

**d.-** Las indemnizaciones procedentes por el derribo de construcciones, destrucción de plantaciones, obras o instalaciones, así como las que procedan a los arrendatarios de los bienes que hayan de ser derruidos u ocupados.

**e.-** El interés del capital invertido en las obras o servicios cuando el Ayuntamiento hubiere de apelar al crédito para financiar la porción no cubierta por contribuciones especiales o la cubierta por éstas en caso de fraccionamiento general de las mismas.

**3.-** El coste total presupuestado de las obras o servicios, tendrá carácter de mera previsión. Si el coste real fuese mayor o menor que el previsto, se tomará aquel a efectos del cálculo de las cuotas correspondientes.

**4.-** El coste total presupuestado de las obras o servicios, a que se refiere el art.4.1.c de las realizadas por concesionarios con aportación municipal a que se refiere el número 2 del mismo artículo, la base imponible de las contribuciones especiales se determinará en función del importe de estas aportaciones, sin perjuicio de las que puedan imponer otras Administraciones Públicas por razón de la misma obra o servicio. En todo caso, se respetará el límite del 90% a que se refiere el número primero de este artículo.

**5.-** A los efectos de determinar la base imponible, se entenderá por coste soportado por la Administración Municipal la cuantía resultante de restar a la cifra del coste total el importe de las subvenciones o auxilios que la Administración Municipal obtenga.

**6.-** Si la subvención o el auxilio citados se otorgasen por un sujeto pasivo de la contribución especial, su importe se destinará primeramente a compensar la cuota de la respectiva persona o entidad. Si el valor de la subvención o auxilio excediera de dicha cuota, el exceso reducirá, a prorrata, las cuotas de los demás sujetos pasivos.

## **V.- CUOTA**

### **Artículo 8.**

**1.-** La base imponible de las contribuciones especiales se repartirá entre los sujetos pasivos, teniendo en cuenta la clase y naturaleza de las obras y servicios, con sujeción a las siguientes reglas:

**a.-** Con carácter general se aplicarán conjunta o separadamente, como módulos de reparto, los metros lineales de fachada de los inmuebles, su superficie, el volumen edificable de los mismos y el valor catastral a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

**b.-** Si se trata del establecimiento, ampliación o mejora del servicio de extinción de incendios, la distribución podrá llevarse a cabo entre las entidades o sociedades que cubran el riesgo por bienes sitos en el término municipal proporcionalmente al importe de las primas recaudadas en el año inmediatamente anterior. Si la cuota exigible a cada sujeto pasivo fuera superior al 5% del importe de las primas recaudadas por el mismo, el exceso se trasladará a los ejercicios sucesivos hasta su total amortización.

**c.-** En el caso de las obras a que se refiere el apartado "d" del número segundo, del art.6 de la presente Ordenanza, el importe total de las contribuciones especiales será distribuido entre las compañías o empresas que hayan de utilizarlas en razón al espacio reservado a cada una o en proporción a la total sección de las mismas, aún cuando no las usen inmediatamente.



#### **Artículo 9.**

En el supuesto de que la normativa aplicable o Tratados Internacionales concedan beneficios fiscales, las cuotas que puedan corresponder a los beneficiarios no serán distribuidas entre los demás contribuyentes.

#### **Artículo 10.**

Una vez determinada la cuota a satisfacer, la Corporación podrá conceder, a solicitud del sujeto pasivo, el fraccionamiento o aplazamiento de aquella por un plazo máximo de cinco años.

### **VI.- DEVENGO DEL TRIBUTO**

#### **Artículo 11.**

1.- Las contribuciones especiales se devengan en el momento en que las obras se hayan ejecutado o el servicio haya comenzado a prestarse. Si las obras fueran fraccionables, el devengo se producirá para cada uno de los sujetos pasivos desde que se hayan ejecutado las correspondientes a cada tramo o fracción de la obra.

2.- Sin perjuicio de lo dispuesto en el número anterior, una vez aprobado el acuerdo concreto de imposición y ordenación, el Ayuntamiento podrá exigir por anticipado el pago de las contribuciones especiales en función del importe del coste previsto para el año siguiente. No podrá exigirse el anticipo de una nueva anualidad sin que hayan sido ejecutadas las obras para las cuales se exigió el correspondiente anticipo.

3.- El momento del devengo de las contribuciones especiales se tendrá en cuenta a los efectos de determinar la persona obligada al pago de conformidad con lo dispuesto en el art.6, aún cuando en el acuerdo concreto de ordenación figure como sujeto pasivo quien lo sea con referencia a la fecha de su aprobación y de que el mismo hubiere anticipado el pago de cuotas, de conformidad a lo dispuesto en el número segundo del presente artículo. Cuando la persona que figure como sujeto pasivo en el acuerdo concreto de ordenación y haya sido notificada de ello, trasmita los derechos sobre los bienes o explotaciones que motivan la imposición en el periodo comprendido entre la aprobación de dicho acuerdo y el del nacimiento del devengo, estará obligada a dar cuenta a la Administración Municipal de la transmisión efectuada, dentro del plazo de un mes desde la fecha de ésta, y, si no lo hiciera, dicha Administración podrá dirigir la acción para el cobro, contra quien figuraba como sujeto pasivo en el expediente.

4.- Una vez finalizada la realización total o parcial de las obras, o iniciada la prestación del servicio, se procederá a señalar los sujetos pasivos, la base y las cuotas individualizadas definitivas, girando las liquidaciones que procedan y compensando como entrega a cuenta los pagos anticipados que se hubieren efectuado. Tal señalamiento definitivo se realizará por la Administración Municipal ajustándose a las normas del acuerdo concreto de ordenación del tributo para la obra o servicio de que se trate.

5.- Si los pagos anticipados hubieran sido efectuados por personas que no tienen la condición de sujetos pasivos en la fecha del devengo del tributo o bien excedieran de la cuota individual definitiva que les corresponda, la Administración Municipal practicará de oficio la pertinente devolución.

### **VII.- IMPOSICIÓN Y ORDENACIÓN**

#### **Artículo 12.**

1.- La exacción de las contribuciones especiales precisará la previa adopción del acuerdo de imposición en cada caso concreto.

2.- El acuerdo relativo a la realización de una obra o tal establecimiento o ampliación de un servicio que deba costearse mediante contribuciones especiales no podrá ejecutarse hasta que se haya aprobado la ordenación concreta de éstas.

3.- El acuerdo de ordenación será de inexcusable adopción y contendrá la determinación del coste previsto de las obras y servicios, de la cantidad a repartir entre los beneficiarios y de los criterios de reparto. El acuerdo de ordenación concreto se remitirá a la presente Ordenanza.



4.- Una vez adoptado el acuerdo concreto de ordenación de contribuciones especiales y determinadas las cuotas a satisfacer, éstas serán notificadas individualmente a cada sujeto pasivo si éste o su domicilio fueren conocidos, y, en su defecto, por edictos. Los interesados podrán formular recurso de reposición ante el Ayuntamiento o, en su caso, reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico Administrativo Foral del Territorio Histórico, que podrá versar sobre la procedencia de las contribuciones especiales, el porcentaje del coste que deban satisfacer las personas especialmente beneficiadas o las cuotas asignadas.

#### **Artículo 13.**

1.- Cuando las obras y servicios de la competencia municipal sean realizadas o prestadas por el Ayuntamiento con la colaboración económica de otra Entidad Local, y siempre que se impongan contribuciones especiales con arreglo a lo dispuesto en la normativa foral, la gestión y recaudación de las mismas se hará por la Entidad que tome a su cargo la realización de las obras o el establecimiento o ampliación de los servicios, sin perjuicio de que cada entidad conserve su competencia respectiva en orden a los acuerdos de imposición y de ordenación.

2.- En el supuesto de que el acuerdo concreto de ordenación no fuera aprobado por una de dichas entidades, quedará sin efecto la unidad de actuación, adoptando separadamente cada una de ellas las decisiones que procedan.

### **VIII.- COLABORACIÓN CIUDADANA**

#### **Artículo 14.**

1.- Los propietarios o titulares afectados por las obras podrán constituirse en Asociación administrativa de contribuyentes y promover la realización de obras o el establecimiento o ampliación de servicios municipales, comprometiéndose a sufragar la parte que corresponde aportar al Ayuntamiento cuando la situación financiera de éste no lo permitiera, además de la que les corresponda según la naturaleza de la obra o servicio.

2.- Asimismo, los propietarios o titulares afectados por la realización de las obras o el establecimiento o ampliación de servicios promovidos por el Ayuntamiento podrán constituirse en Asociaciones Administrativas de contribuyentes en el período de exposición al público del acuerdo de ordenación de las contribuciones especiales.

#### **Artículo 15.**

Para la constitución de las Asociaciones Administrativas de contribuyentes a que se refiere el artículo anterior, el acuerdo deberá ser tomado por la mayoría absoluta de los afectados, siempre que representen, al menos, los dos tercios de las cuotas que deban satisfacerse.

#### **Artículo 16.**

1.- El funcionamiento de las Asociaciones de contribuyentes se acomodará a lo que dispongan las normas reglamentarias que desarrollen la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales.

2.- En todo caso, los acuerdos adoptados por la Asociación administrativa de contribuyentes por mayoría absoluta de éstos y que representen los dos tercios de las cuotas que deban satisfacerse, obligarán a los demás. Si dicha Asociación con el indicado quórum designara dentro de ella una Comisión o Junta Ejecutiva, los acuerdos adoptados por ésta tendrán fuerza para obligar a los interesados.

3.- Las Asociaciones administrativas de contribuyentes, una vez constituidas conforme a lo dispuesto en los números primero y segundo del art.14, podrán recabar del Ayuntamiento la ejecución directa de las obras y servicios.

A tal efecto, se tendrán en cuenta los siguientes requisitos:

a.- La ejecución habrá de llevarse a cabo por sujeción a las condiciones y plazos del proyecto elaborado por la Administración Municipal o, al menos, sobre el proyecto presentado por la Asociación y aprobado por el Ayuntamiento.



**b.-** Dicha ejecución en todo caso, se hará bajo la dirección de los técnicos designados por el Ayuntamiento.

**c.-** La asociación se hará responsable de los daños y perjuicios que puedan originar tanto a los intereses públicos como privados, así como también del retraso en la ejecución y de los vicios ocultos que se pongan de manifiesto en los cinco años siguientes a la recepción definitiva.

**d.-** Queda facultado el Ayuntamiento para aceptar o rechazar las proposiciones que hagan las Asociaciones administrativas de contribuyentes en orden a la ejecución de las referidas obras y servicios.

**e.-** La aportación municipal a las obras o servicios, caso de existir, será satisfecha inmediatamente después de haber tenido lugar la recepción definitiva.

#### **IX.- DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza Fiscal con su Anexo, fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 29 de septiembre de 1989 y entró en vigor el día 1 de Enero de 1990. Continúa aplicándose con las modificaciones reflejadas en el historial de modificaciones. En tanto no se acuerde su derogación estará en vigor.

#### **HISTORIAL MODIFICACIONES**

| <b>Fecha de aprobación por Pleno Municipal</b> | <b>Número y fecha de publicación B.O.G.</b> | <b>Fecha entrada en vigor</b> | <b>Artículos modificados</b> |
|------------------------------------------------|---------------------------------------------|-------------------------------|------------------------------|
| 29 SEP 1989                                    | 247- 30 DIC. 89                             | 1 ENE 90                      | Aprobación inicial           |

EL ALCALDE,

EL SECRETARIO,